



AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI O LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ESTATUTUAK ONARTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduera, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko; hain zuzen, edozein gaiaren gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak, eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Aipatutako legearen 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 13. artikulua, bestalde, zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Azaldutako guztia ikusita, agindu honen bidez bete egiten da artikuluko horiek agintzen dutena.

Era berean, kontuan hartzen da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoa, hor ezartzen baita arauen kalitatearen zer printzipio bete behar diren erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, kasu honetan interesatzen zaigunerako.

Arauren xedea eta helburua

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen VI. tituluak zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratzten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa, eta haren xedea da lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea eta langileen enplegarritasuna bermatzen, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzen eta gizarte- eta lurralde-koheresia bultzatzen efizientzia lagunduko duen lan-merkatua eratu dadin erraztea.

Lege horretan aurreikusitakoak eta Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak arautzen dute Lanbide, bai eta bere estatutuek zuzenbide pribatuko erakunde publikoentzat ezarritakoaren arabera ere.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzeak haren araubide juridikoaren definizioa osatzen du. Izan ere, gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena, erakundearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea garatzen ditu, 15/2023 Legearen 95. artikulua ezartzen duen bezala.

Estatutuak onartzeak, azken batean, erakundearen funtzionamendu optimoa lortzeko balio du, egitura bat definituz, bere dualtasun funtzionala islatuko duena –

Donostia, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ





enplegu-zerbitzu publiko gisa, batetik, eta, bestetik, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak kudeatzeko erakunde gisa; egitura horrek, gainera, aipatutako 3/2022 Legearen 11. artikuluan jasotako printzipio hauetan sakontzen du: hierarkia, sinpletasuna, antolaketaren argitasuna, subsidiarotasuna, egituraren moldagarritasuna eta gardentasuna.

Agindu honen bidez egiten hasten diren estatutuek Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea eta Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea behar bezala ezartzeko balio behar dute.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Azaldu den bezala, ekimen hau egokia eta bideragarria izateko funtsezko oinarriak dira Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea eta Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea.

Gaiaren arabera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak du eginkizun honetarako eskumena, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak 7. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, dekretu horren bidez sortu, ezabatu eta aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak eta finkatzen baitira sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak.

Aipatutako 18/2024 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko lehenengo apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailean txertatzen dira lehengo Lan eta Enplegu Saileko organo eta atal guztiak.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen zuen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak xedatzen duenez, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokio araudi-proposamenak egitea enplegu- eta prestakuntza-arloan eta diru-sarreraren bermeko eta gizarteratzeko arloan, betiere Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren bidez.

Zer ondorio izango dituen ordenamendu juridikoan.

Lantzen ari garen arau-testua onartzeak berekin ekarriko du maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretua indargabetzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituena.

Zer eragin izango duen ekonomian eta aurrekontuetan.

Beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako eran, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, dekretu horren bidez barne-ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan.



Presa-deklarazioa.

Eusko Legebiltzarrak Enpleguari buruzko Legea onartu zuen, 2023ko abenduaren 21ean. Lege hori argitaratu eta sei hilabetera jarriko da indarrean, zehazki 2024ko ekainaren 29an.

Azaldu den bezala, lege horren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da; gaur egun, organismo autonomoa da, eta, hortaz, hala izateari utziko dio. Hori dela eta, estatutu berriak onartu behar dira, erakundearen forma juridiko berria jasotzeko, eta haren araubide juridikoaren definizioa osatzeko, Enpleguari buruzko Legearen 95. artikulua ezartzen duen hedadurarekin.

Enpleguari buruzko Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuak xedatzen duenez, *“Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa 2025eko urtarrilaren*

1ean bihurtuko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko erakunde publiko”. Beraz, horixe da presa-deklarazioaren helburua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eraldaketa legean aurreikusitako egunean eginda egotea eta erakunde publikoaren egitura organikoa eta funtzionala egun horretan osatuta egotea.

Deklarazioa presakotzat jotzeko oinarria Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 6.3 artikuluan dago, honako hau ezartzen baitu: *“Xedapen orokorrak egiteko prozedura presaz izapidetzeko arrazoiak daudela erabaki ahal izango da baldin eta interes publikoko arrazoi larriak edo ezohiko zirkunstantziak badaude eta, aldezturik aurreikusi ezin izan direlako, presaz onartzea exijitzen badute. Era berean, presaz izapidetzea erabakiko da baldin eta beharrezkoa bada araua indarrean jartzea epe jakin batean, hain zuzen zuzentarauen transposizioarako eskatutako epean, edo Estatuko oinarrizko legedira egokitzeko edo arau jakin bat Konstituzioaren kontrako deklaratzeko edo baliogabetzeko duten epaileen erabakietara egokitzeko epean”*.

Aurreko azalpena bat dator transkribatutako manuaren bigarren paragrafoan jasotako kasuarekin, hau da, araugintzan berehala esku hartu beharrekin.

Orain aztertzen ari garen kasuan, araugintzan berehala esku hartu behararen helburua da lege autonomikoaren erabateko eraginkortasuna bermatzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eraldatzeko ezarritako epea betetzeari dagokionez, zeina Enpleguari buruzko Legea indarrean sartu ondorengo baita.

6/2022 Legeak lotura nabarmenak ditu Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 27.1 artikuluaekin, eta testuaren edukia antzekoa da. Hori dela eta, oso baliagarria da Auzitegi Gorenaren interpretazioa aztertzea.

Hala, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2020ko uztailaren 3ko Epaiaren 3. oinarri juridikoak (137/2019 AAE) abala ematen dio presa-deklarazioari, eta araua ezartzeko egutegia hartzen du justifikaziotzat. Ildo berekoa da Auzitegi Gorenaren sala beraren 2020ko ekainaren 22ko Epaiaren 5. oinarri juridikoa (260/2018 AAE).



Azken finean, berehala esku hartu beharra dago araugintzan, ohiko bideak ezarri baino epe laburragoan, eta Auzitegi Gorenak babestu egiten du izapidea presaz egitearen funtsa, lege autonomikoaren antzeko erregulazio bat oinarri hartuta.

Azkenik, egokia da identifikatzea zer ondorio izango dituen presa-deklarazioak agindu honen bidez hasten den arauaren izapidetzeari; honako hauek izango dira ondorioak:

a) Erdira murriztea txostenak eta alegazioak egiteko epeak, horretarako aukera ematen baitu 6/2022 Legearen 6.1. artikulua.

b) Aurreiazko kontsultaren izapideak kentzea, 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan xedatutakoaren babesean –gainera, haren funtzionaltasuna zalantzarria da, legea baita dekretua gaitzen duen benetako oinarria, dekretua onartu beharra zehazten duena, haren helburuak eta erregulazio-irismena zehazten dituen–, eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren txostena ere kentzea, ez baita lege-mailako arau batean eskatutako nahitaezko txosten bat.

Zer izapide eta txosten jotzen diren bidezkotzat.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) apartatuan xedatutakoari jarraikiz, prozedura hasteko Aginduak zehaztuko du zein diren bidezko iriztitako izapide eta txostenak, proposatu den araudiaren gaia eta edukia aintzat hartuta. Adierazitakoa kontuan harturik, jarraian, aurreikusitako dekretu-proiektua idazteko eta onartzeko hasiera batean eskatzen diren izapideak eta txostenak aipatuko dira:

1.- Prozedura hasteko Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidezkotasanari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau ezagutza partekatuko “Legesarea” lankidetzaren espazioan argitaratuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuan xedatutakoarekin bat etorriz. Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen ditu erabaki horrek.

2.- Proiektua idaztea.

Dekretu-proiektuaren testua agindu honen edukia aintzat hartuta idatziko da, eta lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak hartuko dira kontuan, beharrezko eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitza aintzat hartuz, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Testuan behar bezala azaldu beharko dira dekretu-proiektua egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoak, 6/2022 Legearen 14.2 artikulua eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren lehenengoa apartatuko 1. puntuak ezartzen duten moduan; Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen ditu erabaki horrek (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Idatzitako testua ele bitan idatzi beharko da, aldez aurreko onarpena jaso eta izapidetu aurretik. Araua idazteko prozesu osoan, hizkuntza-bertsioak landu bitartean, hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatuko da, eta hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiliko da, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan, eta Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz. Erabaki horrek neurriak onartu zituen lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko.

3.- Generoaren arabera eraginaren txostena.

Ez da beharrezkoa izango generoaren arabera eragina ebaluatzeko txostena egitea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak (1/2023 Dekretu Legegilearen bidez onartuak) 20. artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak xedatzen dutenaren arabera. Erabaki horrek zenbait jarraibide onartu zituen generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko. Jarraibide horietan zehazten da ez dela beharrezkoa txosten hori egitea, funtsean antolaketa-izaera duten arau-proposamenetan, hala nola egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretuetan.

4.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatu xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

5.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Memoria ekonomikoa.

Lehenago esan bezala, beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomiko espezifiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako eran, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, dekretu horren bidez barne-



ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan.

7.- Araudi-proiektuaren alde aurreko onarpena eta egoitza elektronikoa zein Legesarean argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dekretu-proiektuak Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren onespena jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatueta aipatutako gainerako dokumentuak –espedientea osatuko dutenak– erantsiko zaizkio.

Aldez aurreko onarpena jaso duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratuko da, batez ere 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontuan izanik argitalpen horren data aldi berean gauzatuko diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango dela.

Hala aldez aurreko onarpenaren agindua nola araugintza-proiektua Legesarea lankidetzagunean argitara emango dira (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 2. puntua).

8.- Entzunaldi eta informazio publikoa.

Araudiaren testuak alde aurreko onarpena jaso ondoren, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa; horrekin batera, bete egingo da herritarren parte-hartzeari buruzko baldintza, herritarrei alde aurretik kontsulta egiteko beharrik gabe; izan ere, hori bat dator 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzeko Erabakia) lehenengo apartatuaren 5. puntuan eta APELren 133.4 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoarekin.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira, epe komun berean, alde aurretiko onespena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

9.- Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Testu arauemaile honek ez du bete behar beste administrazio batzuek parte hartzeko edo haiei kontsulta egiteko izapidea, proposatzen den erregulazioak ez baita zuzenean eragiten beste administrazio batzuei, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

10.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura bideratzean dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Bestek beste, honako hauek bildu behar dira:

- Honako txosten hauek aldi berean eskatuko dira, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

- ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, hala xedatuta baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan. Dekretu horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen da.
- ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako Herritarrekiko Arreta eta Zerbitzu Digitalen txostena, hala xedatzen baita sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1 artikuluan.
- ✓ Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, oinarriztat hartuta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2 artikuluan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18.a) artikuluan xedatutakoa.

- Aurreko izapideak amaituta, funtsezko txosten hauek ondoz ondo bete beharko dira:

- ✓ Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, arauen kontrol ekonomikoarena, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartua, eta EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretua.

6/2022 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- ✓ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikuluan c) letran xedatuta dagoenaren arabera, eta 3/2005 Legearen azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoari jarraikiz.

6/2022 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.



11.- Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedura osoari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatu 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak proposamena onartzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuko 7.q artikulua arabera, Administrazio Kontseiluak "onartu behar du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak aldatzeko proposamena".

Administrazio Kontseiluak onartutako testua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan, hargatik eragotzi gabe Kontseiluak xedapen orokorra egiteko prozeduran parte hartzea.

13.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaitu eta gero Gobernu Kontseiluaren behin betiko onespina jasotzeko aurkeztuko da, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Ez da ikusten Europar Batasunean inolako izapiderik egiteko beharrik.

Idazteko sistema.

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari eskatuko zaio itzulpena egitea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agintzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

Prozedura Tramitagune bidez izapidetzea.

"Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da prozedura, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.



Horregatik, eta azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Hasiera ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko estatutuak onartzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Bigarrena. – Premiazkotzat jotzea aurreko puntuan aipatutako proiektuaren izapidetzea, txostenak eta alegazioak egiteko epeak erdira murriztuta eta izapidetak azalpen-zatian aurreikusitako moduan eginda.

Hirugarrena.- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza izendatzea aipatutako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

Laugarrena. - Agindu honen berri ematea “Legesarea” izeneko lankidetzagunean, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an emandako Erabakian xedatutakoaren arabera (erabaki horren bidez, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu ziren). Horren gain, “Legegunea” izeneko gunean ere ezagutzera ematea.

Bosgarrena. - Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz,

Miguel Torres Lorenzo

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua